

PILOTA JAIALDIA LEITZAKO PESTETAN

Hemen dira 2023ko Leitzako pestak. Egitarau mardula, eta egitarauaren barruan ohikoa den pilota jaialdia pilotalekuan. Aurten, berrikuntza esanguratsu batekin: azkeneko aldian plazan jokaturako emakumezkoen pilota partidak pilotalekura eramanen dira. Emakumezkoen pilotari dagokion tokia emateko urratsa da, berdintasunaren aldeko urratsa.

Aldaketa horrek galdera batzuk sortu ditu, ulertzekoa da, eta idatzi honen bitartez urrats esanguratsu horren esanahia azpimarratu nahi dugu, baita aldaketa nola gertatu den azaldu ere:

1.- Emakumezkoen partida profesionalak gizonetzkoen partida profesionalekin elkartzeko erabakia Leitzako Pesta batzordeak hartu zuen, Udalaren babesarekin, Udala bera bertako partaide baita.

2.- Jaialdirako Pesta batzordeak egindako proposamena hauxe izan zen: 2023ko jaialdian ADOS Pilotako pilotariak eta ASPEko pilotariak aritzea, enpresa bakoitzak partida bana jokotuta. Enpresa bakoitzari ordainduko zitzaionaz gainera, takillako irabaziak ASPErentzat izanen ziren, horren truke sarrerak, epaileak eta bestelako kudeaketa haien esku utzita.

3.- Hori da, zehazki, hasieran bi enpresekin adostu zena eta hasieran biek ontzat eman zutena.

4.- Aurrerago, ASPEk atzera egin eta bestelako proposamena egin zuen. Ez dagokio Pesta batzordeari ASPEren arrazoiak edo argudioak azaltzea, baina haien proposamena izan zen jaialdiak eta kartela banatzea, alde batetik gizonetzkoen jaialdia eta bestetik emakumezkoena.

5.- Pesta batzordeak hasierako akordioari eutsi dio. Izan ere, 2023. urtean ez zaigu onartzeko modukoa iruditzen jaialdia banatu behar izatea eta emakumezkoak eta gizonetzkoak jaialdi berean ezin jokotzea. Berdintasunaren ikuspegitik ez dago bereizkeria hori onartzerik, atzerapauso bat izanen litzateke, eta gure asmoa aurrera egitea da. Duintasunak eta berdintasunaren printzipioak jaialdi bakar batean eta normaltasun osoz aritzea eskatzen digu eta horri eutsi dio Pesta batzordeak, bidezko erabakia hori delakoan. Bide beretik jokatu dute beste herri batzuetan, Etxarri-Aranatzen eta Agoitzen, esate baterako, han ere jaialdi mistoak egingen baitira.

6.- 2023ko Leitzako pestetan pilota profesionala izanen da, beraz, emakumezkoena oraingoan, eta pilotari profesional esanguratsu izandakoek osatuko dute jaialdia. Jaialdi erakargarria, gustagarria izanen dena, eta tartean hiru Leitzar: Goiuri Zabaleta, Iera Agirre eta Oinatz Bengoetxea. Sarreraren prezioa, gainera, edonorentzat eskuragarria: 10 €.

7.- Jaialdiko sarreretan aterako den dirua, bestalde, Leitzako pilota eskolarentzat izanen da.

8.- Pilota jaialdi erakargarria izanen dugu, horrenbestez, Leitzako pestetan eta, horren bitartez, emakumezkoen pilotaz gainera, Leitzako pilota eskola eta Leitzako pilotariak laguntzeko modua izanen dugu. Dei egiten diogu herritar guztiei pilotalekura hurbildu, gozatu eta ireki den bide honen aldeko urratsa egitera.

9.- Ziur gaude bide egokia dela, enpresa guztiek ere hala ulertuko dutela, eta aurrerantzean ere bide honekin bat egingen dutela eta pestetarako pilota partida profesionalak antolatzen jarraituko dugula.

LEITZAKO PESTA BATZORDEA